



Hitzordu berria Sahararekin

Hurria-Saharak neguan jasotako elikagaien datuen berri eman du, eta bertso saioa iragarri du datorren martxoaren 19rako / 5

Agenda morea

Kultur, kirol eta gizarte mailako ekitaldiak martxoaren 8aren bueltan / 8-9

Euken Garmendia
Urnietako
EH Bilduko
alkategaiari
elkarrizketa / 2

Harrera-familien
esperientzia
Lucia Saiz
urnietarraren
eskutik / 3

bertako
igogailuak | ascensores

BERTAKO OROTBARRIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAITZA
ZORROTZENA

+2.000 bezerok gugon
dute konfiantza

943 903 450
bertoko.eus



Euken Garmendia, Izarre baserriko lurretan. AIURRI

“Herriarekin eta herriarentzat lan egitera nator”

EUKEN GARMENDIA MARTINEZ URNIETAKO EHBILDUKO ZERRENDABURUA

Izarre baserriko semea aukeratu zuten herritarrek hautagai hiru aste atzera, eta buru-belarri ari da lanean zinegotzi taldea eta hauteskunde programa osatzen

Andoni Urbistondo URNIETA

Lategi bailaran dago Izarre baserria, eta baserritik gertu dagoen muinoa aukeratu du Eukenek elkarrizketa egiteko. Hernaniko Portu bizitokia dauka ekialdera, Onddi eta Adarramendi hegora, eta Urnietako herri gunea iparrera. Herriari begira erantzun ditu galderak.

Nor zaitugu, Euken?

Euken Garmendia Martinez naiz, atzean dagoen Izarre baserrian

jaioa. 51 urte ditut, eta lau anaie-tan bigarrena naiz. Eugenio eta Laura dira gurasoak, eta 27 urte bete nituen arte baserrian bertan bizi izan nintzen. Orduz

"NI AUKERATU NAUTE ALDAKETA EGITEN HASTEKO. EA ASMATZEN DUDAN"

geroztik Hernaniko Portu auzoan bizi naiz emaztea eta bi semeekin, baina egunero etortzen naiz baserriraazienda zaintzera. Beno, egunero ez, urteko bizpahiru egunetan kale egiten dut, egun horietan gauza garrantzitsuagoak egin behar direlako.

Urnietarekin harreman zuzena mantentzen segitzen duzula, alegia. Baserriko behie galdetzea, one-na... Koadrila ere herrikoa dut, hilero elkartzen gara soziedadean,

eta lagunek ematen didate herriaren berri zehatz.

Zein lanbide duzu?

Langilea naiz Rezola porlan enpresan, Añorgan. 2003az geroztik langilea naiz, lehenago 10 urte egin nituen bertan beste enpresa batentzat. LAB sindikatuko ordezkaria ere banaiz enpresan.

Nolatan aurkeztu zara Urnietako EHBilduko zerrendaburu?

Beno, jenderen batek nire izena bota zuen, proposatu zidaten eta baiezkoa eman nuen. Herriak aldaketa eskatu duela sumatu, ikusi dut, eta ni aukeratu nauten aldaketa hori egiten hasteko. Ea asmatzen dudana.

Ezustekoa izan al zen zure izena agertu izana?

Ezusteko handia, noski. Egia da gazte garaian ibili nintzela ezker abertzalearen bueltan. Nire burua eskaini dut beti laguntzeko, baina ez dute beharrik izan. Orain niregana heldu dira eta baiezkoa eman dut.

Ze esan dizute herritarrek kalean?

Adarra jo, hori egin dute... ‘Alkate, alkate!’ oihu egin didate zenbaitek, txantxetan. Ilusioa sortu badut, gaitzerdi.

1993an ere gaztea zinen, eta urte hartan herriak nekez ahaztuko duen pasadizo ilun bat bizitakoa zara.

Bai, orduan egurra jaso genuen herriko gazte askok, eta Gurutze lantzi urnietarra hilkutxa batean bueltatu zen herrira. Herriko gazte jendea izutu nahi izan zuten, antolatzen eta indartzen ari zela ikusi zutelako, eta euren helburua lortu zuten: gazte jendea desaktibatzea, boluntario lana ezeztatzea. Sakabanatu egin zuten gazteria. 30 urte pasa dira urte hartatik, eta orain niri tokatu zait erantzukizuna hartzea.

Nola ikusten duzu Urnietan? Ze transmititu dizu jendeak?

Legegintzaldi gogorra izan dela sumatu dut. Pandemia ere tartean egon da, eta horrek gauzak zaildu ditu asko. EH Bilduko komunitate barruan deskonexio apur bat nabaritu dela esango nuke. Deskonexio hori zuzendu eta berriro komunitate kohesionatu bat lortzea izango da nire helburua.

"LAGUNTZEKO NIRE BURUA ESKAINI DUT, BETI. ORAIN NIGANA HELDU DIRA ETA BAIEZKOA EMAN DUT"

Eta zer egiteko asmoa duzu aipatu duzun hutsune hori konpontzeko?

Herritarrei entzun. Herrigintza faltan bota dute hainbatek, eta jendeari eskatzen duena ematen saiatzeko konpromisoa erakutsi nahi nuke. Kaleko lanketa sustatu, batez ere, gertuko harremanak landu herritarrekin. Beharrak jakin eta haiek asetzeko herritarrari entzutea baino ezer hoberik ez dago.

Emaitzaren bat pentsatu duzu? Zerekin konformatuko zinateke?

EAJ nagusi izan da azken hiru legegintzaldietan, azken biak gehien-go osoz.

Urnietan alkatetza lortzea zaila da, EAJk agintean egin baititu azken hiru legegintzaldiak. Azken biak, gainera, gehien-go osoz. Azken bi legegintzaldietan lau zinegotzi izan ditu EHBilduk, eta aurrekoan bost. Nondik abiatzen garen aintzat hartuta lan asko dugu aurretik, baina ez dut gure burua mugatu nahi. Ahal den emaitza onena lortzeko helburua dugu, eta ahal bada Urnietan gobernatzeko lan egingo dugu.

Eta zer mezu emango zenieke urnietarrei, zu bozkatzeko? Nola konbentzitu nahi zenuke herritarra?

Ba herriari entzutera natorrela, herriarekin lan egitera. Dedi-kazio osoa edukiko dut jardun horretan.

Zein erronka ditu Euken Garmendiak, zein lehentasun, epe laburrean?

Beno, hiru aste baino ez dira hautagai izendatu nindutela. Ez naiz Udaletxera sartu, eta hauteskundeak egin arte ere ezingo dut gauza handirik egin. Pausoz pauso joan behar da. Orain zinegotzi taldea osatzeko egunak, asteak dira, hauteskunde programa osatzeko garaia. Ea apirilera gauzak aurrerartzen ditugun. Gazteen parte hartzea sustatu nahi nukeela agindu dezaket, haien ekarpena funtsezkoa baita. Kiroldegiko grebak ere asko arduratu nau. Ez dut ulertzen nolatan onar litekeen langileak hamabi urte soldata igoserarik gabe egotea, eta herriaren mesedean ari den langileak badira, are gutxiago.

"GAZTEEN PARTE HARTZEA SUSTATU NAHI NUKEELA AGINDU DEZAKET"

“Banatu eta dolua bizitzea da guretzat zailena”

LUCIA SAIZ TERREROS URNIETAKO MARTIN-SAIZ HARRERA-FAMILIA

Bi hamarkada pasatxo daramatza Martin-Saiz familiak harrera-familia izaten. Egun, larrialdiko harrera egiten du, jaioberrietatik hasi eta sei urte bitarteko hurrekin



Lucia Saiz Terreros. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Zeri buruz ari gara larrialdiko harrera familiez ari garenean.

Iraupenean desberdintzen da harrera-familia iraunkorretik. Jaio eta sei urte bitarteko haurrak sartzen dira larrialdiko harreran, eta, gutxi gorabehera, sei hilabeteko denbora-tartean hartzen dira. Ondoren, familia biologikora, harrera iraunkorrera edo adopziora bideratzen dira ume horiek. Horretarako aukerarik ez badago, gurekin gelditzen dira zenbait hilabete gehiago.

Zer kontsideratzen da “larrialdiko” horrelako egoera batean?

Babesgabetasun egoera bat, edozein motatakoa. Gu ez gara balorazioetan sartzen, ez eta epaie-tan ere; guk jaso egiten ditugu. Epai batek haurra babesik gabe dagoela erabaki eta gure etxera etortzen da.

Zerk eraman zizuen zuei harrera familia izateko hautua egitera?

Anbulatorioan ikusitako ohar baten harira hasi zen guztia. Lehenik, egun, semea dugunarekin harrera familia iraunkor izan ginen, orain, 23 bat urte. Ondoren, larrialdiko harrera egiten hasi ginen, eta, ia, hamar urte daramatzagu horretan.

Gogoan al daukazu etxean harrera-familia izateko proposamena luzatu zenutenean?

Seme-alabek sei eta bederatzi bat urte zituzten honetan hasi ginenean. Pozik agertu ziren eta ez zuten inolako oztoporik jarri.

Gainera, etxera datorren haurraren integrazioan asko laguntzen dute. Alegia, aurrez, seme-alabak izatea hobe dela diote, gurasoek, jada, dinamikak eza-gutzeaz gain, umeek tokira egokitzen laguntzen dutelako. Beraiek ez dute pentsatzen, zer gertatuko den, zenbat denborarako gertatuko den, zenbat bisita egin beharko diren... Naturaltasunarekin hartzen dute: beren etxean baldin badago, anaia-arrebatzat dute eta listo, beste inolako konplexutasunik gabe.

Aldaketaren bat narabitu al zenuten harrera-familia iraunkorretik larrialdiko izatera igaro zinetenean?

Harrerak denbora-tarte laburra goa hartzen dutenez, dolu gehiago bizi behar dituzu larrialdiko harreran. Prest egon behar duzu, badakizulako denbora-tarte labur jakin batean banandu egin beharko zarela. Iraunkorrean, berriz, oro har, zurekin geldituko dela uste duzu. Harrera iraunkorrak ez du, denboran, muga jakinik. Egia da, azken horren barruan, aldi baterako harrerak ere badaudela, eta bi urte inguruko iraupena hartzen dute horiek. **Zein adin tarteko haurrak izan dira zuen etxean?**

Batez ere, jaioberriak izan ditugu: gutxi gorabehera, 0-3 urte bitarteko haurrak jaso ditugu. Egun batetik bestera, hots egiten didate, baita egunean bertan ere. Libre eta prest baldin bago, etxera etortzen da haurra.

Adinetik adinera, premiak aldatu egiten dira. Erraza al zaizue, aldiro, horietara moldatzea?

Erraza egiten zaigu. Egia da, lehen gauean, beldur pixka bat sentitzen dudala, baina, bihar-munean, maiteminduta esnatzen naiz. Hamar urte daramatzat larrialdiko harreran eta, oraindik, urduri jartzen naiz. Hori sentitzen ez dudanean, egunean, uzteko ordua iritsiko da. Baina, gaur gaurkoz, bertigo apur bat sartzen zait hasieran, haur baten bila joateko deia egiten didatenean. Guztira, hamasei kasu izan ditut etxean.

Ume askori bermatu diezue babesa nahiz goxotasuna, egunetik egunera, gero eta lotura estuagoa sortzeraino.

Banatu eta dolua bizi behar izatea da, harrera-familia gisa, guretzat zailena.

Eskarmentuarekin, agurrari neurria hartzen al zaio?

Kasu bakoitza mundu bat da, kasuan kasu begiratu behar da. Zenbat eta denbora tarte luzea goa igaro gurekin, zenbat eta nagusiagoa izan haurra, orduan eta gehiago kostatu zaigu dolua bizitzea. Dena dela, sortutako loturaren araberakoa da dolua.

Ni oso baikorra naiz, eta oso gustuko dut harrera-familia izatea, baina guztia ez da erraza izaten. Haurrak etxetik joatea zaila egiten zait. Lanketa handia behar du horrek eta dolua bizi behar izatea, kasu guztietan.

Haurrek diru-laguntzak izaten dituzte, harrera familiok zama ekonomikorik izan ez dezagun, baina hau ez da lan bat, ez dugu soldata bat irabazten, ez eta kotizatzen ere. Barrutik sentitzen dugun zerbait da.

Harrerak iraun bitartean, harremana izaten al duzue erakunde publikoekin zein elkarteekin?

Babes psikologikoa jasotzen dugu. Bisita egiten digute, noizean behin, eta ditugun galderak erantzuten dizkigute. Zerbait ohiz kanpokoa dela ikustean, jakinarazi egiten diegu. Askotariko ikastarotan izan gara eta, Laukaren eskutik, formazioak jasotzen jarraitzen dugu, etengabe: doluei nola egin aurre, musikoterapia, masaje-tailerra... Bestalde, Beroa harrera-familien elkarte ere badago lanean.

Prozesuan, familia biologikoarekin harremana izaten al duzue harrera familiek?

Ez. Ikuskatzaileak haurra zentrorra eramaten du, bisita egiteko, baina, ez, guk ez daukagu inolako harremanik familia biologikoekin.

Behin zuen etxetik joaten direnean, beraiekin harremana mantentzen jarraitu al dezakezue?

Batzuk familia biologikora itzultzen dira, beste batzuk, aldiz, harrera iraunkorrera, edo baita adopziora ere. Lehen kasuan, zailagoa iruditzen zait. Besteetan, familiaren arabera izaten dugu harremana, nik hor ez dut in-

baditzen. Nahi duen informazioa bidaltzen dit familiak. Nolanahi ere, orain, esaterako, prozedura bat dago ezarrita, pixkanaka, atxikipena txikitzen joateko.

Ibilbide luzea daramazue harrera familia gisa. Nolako bilakaera ikusi duzue?

Beste lau familiarekin batera hasi ginen, nahiz eta, handik gutxira, horietako bik atzera egin, ez zelako aurreikusitako zuten bezalakoa. Denboraren joanarekin, familiak batzen joan dira, eta, egun, hogeitik gora gaude. Era berean, ikusi dudanagatik, gora egin du eskariak, izan ere, lehen, zentroetara bideratzen zituzten haurrak, eta, orain, legez, ezin dira instituzionalizatu sei urte azpiko umeak. Bestalde, batzuetan, ez dago jarraipenik, alegia, ezarritakoa baino denbora tarte luzeagoa goa igaro izan dute gurean zenbait, ez dagoelako hartuko dituen harrera familia iraunkorrik. Halaber, zenbat eta nagusiagoa izan haurra, orduan eta zailagoa izaten da egoera. Eskuzabaltasuna garrantzitsua da harrera-familia batean, baita enpatia ere. Nork beretik asko jarri behar du.

"ESKUZABALTASUNA GARRANTZITSUA DA HARRERA-FAMILIA BATEAN, BAITA ENPATIA ERE"

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

EH BILDU ANDOAIN

Andoaingo Udala berrabiarazi behar da

Maiatzaren 28an datozen lau urteetan Andoainek, gure herriak, zein norabide hartu nahi duen hautatu ahal izango dugu. Eta EHBilduk argi du: ez dugu azken lau urteetako norabidean jarraitu nahi.

Udalak ez du norabide argirik, noraezean dabil. Eta ez diogu guk bakarrik: EAJko hautagaiari entzun diogu aste honetan esaten Andoain geldirik dagoela, atzean geratzen ari dela; eta hala esan du, lotsagorritu gabe, azken lau urteetan udal gobernuan ardurak izan dituenen.

Bada, Andoain ez dago geldirik, eta horren erakusle argia aurkitu genuen aurreko larunbatean: herritarrek badute aski indarra eta gogoia Andoain bizitzeko herri duin bilakatzeko.

Andoain ez dago geldirik, udal gobernuak da geldirik dagoena; ez dauka herri proiekturik, noraezean doa inora ez daraman bide batean. Andoaingo Udalak norabide aldaketa behar du. Gure herriak etorkizuna izatea nahi badugu, Andoaingo udal gobernuak berrabiarazi egin behar dugu, eta EHBildu prest dago. Hori azaltzeko ekitaldia egingo du EHBilduk datorren martxoaren 12an, igandean 11:30etan hasita, Goikoplazan. EHBilduk herritar guztiak animatu nahi ditu bertara.

POSTONTZIA

CII PROIEKTUAK KALTETUTAKOEN PLATAFORMA ANDOAIN

Datozen egunetan, sinadura-bilketaren datuak eskainiko ditu plataformak

Hamasei urtetik gorako milaka andoaindar atxiki ziren otsailean etxeko postontzian jasotako CII proiektuak kaltetutakoaren helburu betegarrien dekalogora.

Hamar helburuko proposamen hori urtarilaren 21ean aurkeztu zuten Andoaingo pertsona erreferentzialek, Bastero Kultur Etxeko ekitaldi-aretoan, eta, ia berrehun andoaindarrek osatutako auditorioaren aurrean. Bestalde, otsailaren 20an, Andoaingo Udalak, ezohiko osoko bilkuran, PSE-EE, EH BILDU eta PODEMOSen aldeko botoekin eta EAJ-PNVren oposizioarekin, mozio bat onartu zuen. Mozioaren 6. puntuan, plataformak aurkeztutako helburu

betegarrien dekalogoarekin bat egiten du, N1 eta A15 lotzeko etorkizuneko proiektua hasteko proposamen gisa.

Milaka andoaindar izan dira hori egin dutenak, eta orain, CII proiektuak kaltetutakoaren plataforma osatzen duten kideek atxikimendu guztiak ordenatzeko, alderatzeko eta egiaztatzeko unea da, daturen bat zuzena ez bada, baztertzeko.

Plataformak beharrezko denbora izan nahi du egiaztapen-lan hori behar den zorrotasunez eta seriotasunez egiteko, behar bezala egiaztatutako atxikimendu guztiak, eta dokumentua aurkeztu nahi du tokiko, eskualdeko, autonomia-erkidegoko, Estatu eta Europako erakundeetan.

Aurrerantzean, hainbat arrazoi direla medio dekalogoarekiko atxikimendua adierazi ezin izan dutenek online egin ahal izango dute peticion.es/andoain_bizirik helbidean edo fisikoki N15 posta-kutxan, Andoaingo posta-bulegoan. Horretarako, dekalogoak izango dituzte bost saltokietan, Karrikako Coviran dendan, Ernaitza liburu-dendan, Gorostidi burdindegian, Stop liburu-dendan eta Bazkardoko Telletxea janari-dendan.

Plataformak modu publikoan aurkeztuko ditu, datozen egunetan, demokrazia parte-hartzailearen ariketa komunitario handi honen datuak eta, Andoainen, etorkizunerako, berebiziko garrantzia duen gai honen

etorkizunerako proposamen berritzaileak.

Eskertza

Plataformak eskerrak eman nahi dizkie dekalogoarekin bat egin duten milaka eta milaka andoaindarrei. Eskerrak eman nahi dizkie, halaber, hilabete osoan, demokrazia parte-hartzailearen ariketa komunitario handi hori ahalbidetu eta hautetsontziak jarri dituzten establezimenduetako arduradunei eta beren denboraren zati bat mahai informatiboetan laguntzen eman duten komunitateko kide guztiei. Horiek guztiak dira aurrekaririk gabeko lorpen handi honen protagonistak, eta datuak laster argitaratuko dira.

JASOTA BEZALA



"Bukatuko ote dute?"

Kaletxikiko auzokide batek Aiurrira helarazi duen kexa da honakoa. Tren geltokirako bidean, espaloia zeharkatzea

ezinezkoa da. Zulatuta dago, arriskua saihesteko hesiak inguratuta. Seinaleari erreparatuta, bertan agertzen den oharra 2022ko abenduaren 16koa da. Laster, hiru hilabete beteko da. Bizilagunaren kexaren goiburua horixe zen: "Bukatuko ote dute?". Oinezkoen ikuspegitik, denboran traba egiten duen oztopoa da.



KOMUNITATEA

HURRIA-SAHARA ANDOAIN

Elikagai bilketaren datuak eta martxoaren 19ko bertso saioa, Sahararen alde

1976ko otsailaren 27an, orain dela 47 urte, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zen, eta data honen gainean saharar herriarekiko elkartasun adierazpenak ugariak izan ohi dira: elikagai bilketa, adierazpen instituzionalak udaletan, Oporrak Bakean kanpainaren hasiera, eta Andoaingo kasuan, urteroko bertso-saioa.

Elikagai-bilketa dela eta, Mediterraneo itsasoa zeharkatzeko sortu diren logistika arazoak medio, Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara eramateko herriz herri urtero jasotzen den janaria kopuru oso zehatzetara egokitu behar izan dugu; horregatik ezin izan dugu ohi bezala dendetan herritarren ekarpenak jasotzen jasotzen aritu, baina jakinarazi nahi dizuegu ikastetxeen bidez 1.300 kilo janari lortu direla, eta Oronak emandako diru laguntzari esker Hurria Saharak erositako elikagaiekin guztira Andoaini zegokion helburua bete dela: gure herrian 1.800 kilo jaso dira eta Gipuzkoan, guztira, ia 20.000 kilo.

Errefuxiatuen kanpamentuetara iristen zen laguntza instituzionala murriztu da azken urteetan, eta une honetan herritarren elkartasunak ea sahararren antolaketak dira egoera larri bat erantzuteko tresna nagusiak. Horregatik guztiagatik, Andoaingo Hurria Sahara elkarateak eskerrona adierazi nahi die azken kanpainan parte hartu duten ikastetxe, ikasle eta familiei.

Munduan konpontzeke dauden gatazka horietako bat da Saharako; lurralde okupatuetan errepresioa da nagusi, eta errefuxiatu kanpamentuetan egoera larriagoa bihurtu da 2022ko



Elikagaiak, Andoainean jasota bezala. HURRIA-SAHARA



Andoainean 1.800 kilo jaso dira. Gipuzkoan, guztira, ia 20.000 kilo. HURRIA-SAHARA

urrian 1991etik indarrean zegoen su etena hautsitzat eman zenetik. Lurraldea banatzen duen harresi militarren inguruan ordudunik istiluak egunerokoak dira eta biktima ugari sortu dira soldadu marrokiar, saharauiar eta zibilen artean: azken kasu honetan, marrokiar dronek gutxienez zibilen aurkako 61 eraso egin dituzte, 80 pertsoneri eraginez, gehienak saharauiak dira baina baita mauritaniar eta argeliarrak ere.

Testuinguru honetan, oso garrantzitsua da otsailaren 23an Andoaingo Udalak onartutako adierazpen instituzionala: akordioaren artean nabarmentzekoak dira udalbatzako alderdi guztiek onartutako bi hauek: "Espainiako Gobernuko presidenteari Mendebaldeko Sahararekiko Marokoren autonomia-proposamena defendatzean izan duen jarrera aldaketa salatzen dugu" eta "Mendebaldeko Sahara Lurralde Ez Autonomoa dela, Nazioarteko

Zuzenbidearen menpekoa, inoiz ez da Marokoko Erresumakoa izan, eta, horregatik, Mendebaldeko Sahararen legez kanpoko okupazioa bertan behera uzteko eta Saharako Herriak autodeterminaziorako duen eskubidea gauzatzea ahalbidetzeko exijitzen diogu". Aiurrik osorik jaso zuen adierazpena eta oso interesgarria da gaur egungo Sahararen egoera ulertzeko.

Argi dago Saharako arazo politikoa konpontzea dela sahararrak laguntzeko modurik eraginkorrena, baina beste elkartasun ekintzak ere beharrezkoak dira. Horregatik jakinarazi nahi dugu ireki dela 'Oporrak Bakean' proiektuan parte harzeko prozesua: ekimen honin esker haur sahararrek euskal familietan pasatzen dute udara, desertuko tenperatura gogorrek saiestu eta osasun azterketa zehatzagoak eginez, eta saharar eta euskal familien arteko elkartasunaren eta afektu eta hurbiltasun harremanak sustatuaz. Proiektu honetan parte hartzeko Andoainean familia interesaturik balego, Udalarekin harremanetan jar daiteke.

Bertso-saioa

Martxoaren 19an Basteroko Areto Nagusian urteroko bertso saioa izango da Punttuka Eskolarekin lankidetzan. Bertsolari hauek parte hartuko dute: Alaia Martin, Amets Arzallus, Oihana Iguaran, Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio eta Sustrai Colina. Sarrerak salgai daude jada Stop, Ernaitza, elgado eta Urrats-en.

"KANPAINAN PARTE HARTU DUTEN IKASTETXE, IKASLE ETA FAMILIEI GURE ESKERRONA"

LAN GATAZKA

Akordioa Urnietako Kiroldegian



Asteazken goizean zabaldu zuten. AIURRI

Astearte eguerdian iritsi zen albiste, zeinaren bidez, Urnietako udal kiroldegiko lan gatazkari konponbidea ematen zitzaion. Udalak eman zuen albiste, biharamunean hasita, instalakuntzak zabalik izango zirela iragartzearekin batera. Grebak eta, ondorioz, kiroldegia erabateko etenaldiak ia bi hilabeteko iraupena izan du.

Iragan urteko irailean hasi zituzten bertako langileek protestak eta, urtarrilaren 9az geroztik, greba mugagabearen ziren.

ELA sindikatuko ordezkarien adierazpenak

"Lortu dugu, bai. Kosta da, baina akordioa lortu dugu. Pozik gaude adostu dugun hitzarmenarekin. 2024 urtarrilean hasiko gara KPI-IPCari dagokion eguneraketa jasotzen, alde ekonomikoari begira. Data horretatik aurrera azken hiru urteotako eguneraketa kobratzen hasiko gara. Urnietako kiroldegian lan eta soldata baldintzak bideratzea lortu dugu, lanaldia zentzu guztietan tajuzkoa izan dadin".

Urnietako Udalak, bere aldetik, kiroldegiko bazkide kuoten eta bertan eskaintzen diren ikastaroen zati proportzionalak itzuliko dituela iragarri du, "zerbitzurik eman ez den egun guztiagatik".

"Ezinezkoa zait baldintza hauetan jarraitzea"

ELENA IRIMESCU DENDARIA

Martxoaren 17an ateak itxiko ditu Kale Nagusiko Kynai dendak, bederatzi urtez andoaindar askori zerbitzua eskaini eta gero. Hunkituta nabari zaio, azken egunotan

Fer Irazu / J.A. Ubada ANDOAIN

Jende asko igarotzen da zure negozioetik, eta harridura sortu du itxiera iragarri izanak. Zeintzuk dira arrazoi nagusiak?

Bai, gure merkatalgunetik jende asko igarotzen da eta itxieraren iragarpenak guztiak harritu ditu. Ustekabean izan da, ondo dihoakidala uste duelako jende askok, baina, azkenerako, zerga guztiak ordaindu eta gero, oso etekin txikia geratzen zait. Soldata ateratzeko adina, ez. Horregatik, negozioa ixtea erabaki dut.

Zure negozioa behar-beharrezkoa dela agerikoa da. Zer nolako harremana duzu bezeroekin?

Harreman ona dut bezeroekin, eta haietako batzurekin adiskide izatera iritsi naiz. Negozioa beharrezkoa da, baina ez da errentagarria. Beraz, ezinezkoa zait langintza honetan jarraitzea. Bederatzi orduz lanean aritzea etekinik ez eskuratzeko, ezinezkoa da.

Zure negozioarekin beste nonbait jarraitzeko aukera aztertu al duzu?

Ez. Zeren eta jendeak konponketak egitea eskatzen digu, baina ez du gehiegi ordaindu nahi. "Arropa honengatik dirutxo ordaindu eta gero, nola gastatuko dut hainbeste konponketa lanetan?", askotan entzun izan



Elena Irimescu, Kale Nagusiko Kynai dendan. AIURRI

dudan esaldia da eta bezeroa ez da konturatzen nik konponketa lanak egiteko denbora behar dudala. Jositakoa askatu eta konpontzeko denbora behar dut. Etekinik gabe aritzeak ez dit merezi.

Zeintzuk dira zailtasun handienak negozio bat aurrera ateratzeko?

Zergak, alokairua... gastu ugari aurre egin behar zaio.

Zer esango zenieke bezeroei?

Eskerrak eman nahi dizkiet. Denon artean bederatzi urte egin ditugu. Egun onak igaro ditugu, baina ezinezkoa zait horrela jarraitzea. Bizi maila, alor guztietan, igo egin delako. Aurrera jarraitzeko nire lanen salneurriak bikoiztu egin beharko nituzke. Eta badakit hori ezinezkoa dela. Beraz, eskerrik asko denei.

"El rincón de Carlota" parte izan dira bezero guztiak

ROSA MARIA AMADO DENDARIA

Andoaingo Kale Nagusiko dendak ateak itxiko ditu



Lau urte eta erdiz lanean aritu da Rosa Maria Amado, Andoaingo Kale Nagusian.

Fer Irazu / J.A. Ubada ANDOAIN

Negozio bat zabalik izatea zaila bihurtu da gero.

Bai, zaila da. Internet bidezko erosketa dela eta, gertu ditugun hedadura handiko merkatalgunek direla eta, zail egiten da negozioari eustea.

Gastu asko, ezta?

Autonomoak, zergak, alokairua... Gastu askotxo eta, horrez gain, soldatatxoa atera behar da. Beraz, gastu handiak daude horrelako negozio baten atzean.

Bezeroekin bakarrik aurre egin daitezkeenak.

Bezero asko beharko genuke. Herritarrek herrian bertan, are gehiago kontsumitzea beharko genuke dendariok.

Zein izan da zure esperientzia?

Oso pozik nago. Oso gustura egon naiz, Andoaingo Kale Na-

gusira hurbildu den eroslearekin, nire ohiko bezeroekin. Oso eskertuta nago.

Eta merkatarien arteko harremana nolakoa izan da?

Oso ona. Oso gustura, zoriontsu izan naiz gainerako merkatarien alboan.

Epe hurbilean merkataritzan lanean ikusten al duzu zeure burua?

Oraingoz, ez. Esperientzia hau bizi izan dut eta, orain, beste zerbaiten bila abiatuko naiz. Beste lan esperientzia bat bilatu nahi dut.

Zure bezeroei zer esan nahiko zenieke?

Eskerrik asko, den-denei. Oso pozik egin naiz, eta esker hitzak besterik ez ditut. Lau urte eta erdiz ondoan izan ditut, eta guztiak ere "El rincón de Carlota"-ren parte izan dira.

egunean
behin

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

- "Aiurri" taldean astero-astero Arruti gozotegiko sari gozoa zozkatuko dugu.
- Egunean Behin 11D: Urt30-Api2.



Plaza Morean dagoen mural erraldoia silueta ugari josiz osatu da. Elementu baten jarraipena, zortzi pausotan, sorburutik martxoaren 4ko ekitaldiraino. AIURRI

IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Beltza izan zen, morea izan da eta laster urdina izango da

Paletak dituen adina kolore ikus daitezke oihal erraldoiei begira jarrita. Larunbatekoa hilabeteak atzera lantzen hasitako egitasmoaren bistaratzea izan zen. Emaizta ikusgarria izan zen, bistakoa denez. Eta emaitza bezain garrantzitsua izan da bidea: emakume ezberdinak lanean, berdintasunaren aldeko ekimen landua aurrera eramateko. Herri bizi baten adierazgarri izan da, prozesu eder hori bizi eta gero, kolore ugariz bakarrik irudikatu daitekeena. Jone Larrañaga, Ane Amondarain, Itxaso Mendiluze eta emakume gehiago dago Berdintasunaren Oihalak egitasmoaren eragile talde horretan.

Beste ekimen jendetsuetan ibili garenok jakin badakigu ideia on bat nahikoa dela hainbat konplize aktibatzeko. Aipa ditzagun, hainbaten artean, hiru: Ianire Huizi,



Plaza Morean elkartu ziren oihalak zeramatzaten bi martxak. Drone bidez egindako argazkia. AIURRI

Miren Erkizia eta Karmen Rodriguez Ranz. Haiek dira metxa piztu eta sugarrari eusten diotenak, lankide gehiago erakarri eta hasierako ideia gorpuztu duten eragile horien laguntzaile fidelak.

Noizbait aipatu izan dut Larramendi Bazkuneko lagun batek adierazi zidana: *laguntza behar duzun aldiro, okupatuta dagoenari laguntza eskatu*. Ianire, Miren eta Karmen beti daude lanean, eta beti ekimen gehiagotan

murgiltzeko prest. Izan, Euskalaldia, Gau Beltza, Berdintasunaren Oihalak ekimena edo Euskaldunaren mendeurrena. Andoain herriak baduelako gauza on bat: giza-kapitala. Nahikoa da ekimen bat irudikatzea,

boluntarioen efektu biderkatzailea lortzeko. Asteotan, dozenaka jostun izan da lanean, elkarlanean, gainerakooi lezio ederra eskainiz.

Andoaindar askoren lan isilari esker, sekulakoa izan zen Gau Beltza, gogoangarria izan da Berdintasunaren Oihalak ekimena eta bizitzekoa izango da Euskaldunak hilabetearen amaieran gauzatu nahi duen ekitaldi-sorta. Beltza izan zen Andoain, urriaren 31n. Morea izan da martxoaren 4an eta 8an, eta urdina izango da laster.

Paletak adina kolorekoa bilakatzen delako Andoain, horrelakoetan. Urki, Lebiton konpartsa, Olagain Txistularien banda, Kantu Kalejira taldea... Herri ospakizunetarako laguntzeko prest dagoen eragile taldea da. Herria kolorez betetzen dutenak. Pozgarria da, oso.



OTSAIDA

Jendetza Lilatoian

Aldarrikapen kutsuko hitzordua da, ariketa fisikoaren baitan egiten dena. 33. edizioak ere jendetza elkartu zuen, eta horien artean Andoaindik eta Urnietatik hurbildutako emakume asko eta asko.


Antolaketak eskertza-mezua zabaldu zuen, sare sozialen bitartez: "Mila esker 33. edizio honetan parte hartu duzuen 6.000 emakume guztiei. Hurrengo urtean ikusiko gara berriz ere!".



SUPER H



JONE LARRANAGA



Kai Nakai gasteiztarra da. AIURRI

Kai Nakai artistak dantzan jarriko du Bastero Kulturgunea

Emanaldia eskainiko du ostiral honetan, iluntzeko 20:00tan hasita. Sarrerak salgai daude

Erredakzioa ANDOAIN

Durangoko Azokan, 2019an, irabazitako Sormen Bekaren hari-eman zuen bere izena ezagutzera Iratxe Aguilera Kai Nakai artistak. "Kolpe" abestiaren eskutik iritsi zen arrakastaz oholtza gainera, eta, hariari tira eginaz, bere lehen diskoa kaleratu zuen 2020. urtean, "Baime-nik gabe", euskarazko reggaetoi feministaren aldarrikapenaren pean. Lehen pausuak emanda, 2021. urtean, hainba single kaleratu zituen, besteak beste, Beldur Barik proiektuari doinua jarri zion bere "Nahikoa dela" abestiak.

Bere artista ibilbidea, ordea, ez du, soilik, doinuak eta letrak hutsetik sortzen ondu, izan ere, nazioartean oso ezagunak bilakatu diren kantuen euskal bertsiok egin izan ditu, behin baino gehiagotan. Esate baterako, Manuel Turizoren, Lola Indigoren nahiz aski polemika sortu duen Bizarrap eta Shakiraren abestiei cover delakoak egin dizkie. Haren hitzetan,

jendeak gustuko du erritmo ezagunak euskararekin uztartzea. Era berean, modu batera edo bestera, bere burua ezagutzera emateko beste aukera bat da. Horiek guztiak Tik Tok sare sozial ezagunean partekatzen ditu eta 26.400 kide zaletu inguruk jarraitzen dute gertutik artistaren musika.

2021. urtean "Maitia" diskoa kaleratu zuen, bost abestiz osatutako eta Kolonbian ekoiztutako lana. Bertan, egileak dioenez, maitasun-istorio baten faseak aurkezten ditu obrak: "Lehen maitasuna, maitasun toxikoa, norberaren maitasuna, maitamina eta benetako maitasuna". Bada, horiek guztiak aurkeztuko ditu Andoainen, martxoaren 10ean, Emakume Langilearen Nazioarteko egunaren harira antolatutako den ekitaldi-sortaren barruan. Ohi bezala, harekin batera igoko dira taula gainera, Anepe Acedo, Andrea Galdiz, Maialen Galdiz eta Leire Rada dantzariak.

Ekitaldi-sorta, datozen egunotan

Kultur, kirol eta gizarte mailako hitzorduak deituta daude, martxoan zehar, Andoainen eta Urnietan. Udal erakundeek eta gizarte eragileek eskutik datoz, martxoaren 8a ardatz hartuta antolatutakoak

Erredakzioa ANDOAIN/URNIETA

Aste honetan hasita, eta, hila-bete osoan, ekitaldi ugari iragarrita daude, bi udalerrietan.

URNIETA

MARTXOAK 9, OSTEGUNA

Umore bakarriketa

Nerea Arriola youtuber eta aktorearen eskutik, "Asterisko". 19:00 Sarobe.

MARTXOAK 12, IGANDEA

Antzerkia, "Las que limpian"

Sistema turistiko prekarizatzailean, komedia garrantz eta itxaropentsu honek hoteletako garbitzaileen borroka antolatua aldarrikatzen du. 19:00 Sarobe.



Emakumeen pala topaketa, Arraten. AIURRI

ANDOAIN

Martxoak 10, ostirala

Ezpainetako kakaoa eta aromaterapia. 17:00 Gazte Lokala.

Kai Nakai kantariaren emanaldia. 20:00 Bastero.

Martxoak 11, larunbata

Pala zabaleko topaketa, parte hartu nahi duten guztientzat irekia. 10:00-14:00 Arrate.

Martxoak 12, igandea

Emakume futbolarien jaia, Euskalduna taldearen eskutik. 12:00 Ubitarte.

Martxoak 15, asteazkena

Futbola ardatz hartuko duen solasaldia, Euskaldunaren eskutik. 18:30 Bastero.

Martxoak 18, larunbata

Emakumeen pala topaketa. Parte-hartze irekia da. 17:00-20:00 Arrate.

Martxoak 23, osteguna

Hitzaldia, Lodifobia hizpide, Asanblada Feministak antolatuta. 19:00 Gaztetxea.

"Las que limpian" antzezlan

"Elisa y Marcela" obrarekin Urnietan egon ostean, A Panadaria antzerki konpainia galiziarra izango da Saroben, bigarrenet, berriki ondu duen obra aurkezteko: "Las que limpian". Hilaren 12an izango da ikuskizuna, iluntzeko 19:00tan, gazteleraz, eta bost euroko kostua izango du sarrerak.

Sinopsia: Kartel bat atearen heldulekutik zintzilik dago. "Logela egin, mesedez". Hondartzatik itzultzean, oheak eginda, eskuoihal garbiak eta bainua ezin txukunagoa. Garbitzen dutenak dira. Satira utopikoa da, lan-eskubide eta eskubide sozial justuak lortzeko hoteletako gelariak borrokan oinarritzen dena.

Andoaingo emakumeentzako jabekuntza eskola

2023 - UDABERRIKO IKASTAROAK

Filofeministak: eredu filosofiko femeninoak garai atzerakoietarako

ASTELEHENAK. **Apirilak 3, 24; maiatzak 15, 29; ekainak 12, 26.**
18:00-20:30, Urigain. Marisa Hurtado.

Serigrafia lantegia

ASTEAZKENAK. **Apirilak 12, 19, 26.**
17:00-19:00, Urigain. Uxue Bereziartua.

Batukada feminista

ASTELEHENAK. **Apirilak 17; maiatzak 8, 22; ekainak 5.**
18:00-20:00, Leizaran institutua. Botapa Batukada.

Elektrizitate lantegia

ASTELEHENA. **Apirilak 17.** OSTEGUNAK. **Apirilak 20, 27; maiatzak 4, 11, 18, 25; ekainak 1.**
17:00-20:00, Urigain. Paz Carbajosa Dalmau.

Boterea, ahizpatasuna, perreo

LARUNBATAK. **Apirilak 22, 29.**
10:00-13:00, Allurralde kiroldegia. Ines Lasagabaster.

Kosmetika naturala lantegia

I hasiera ASTEAZKENAK. **Maiatzak 10, 17, 24, 31.**
II aurreratua ASTEAZKENAK. **Ekainak 7, 14, 21, 28.**
18:00-20:00, Urigain. Kris Lizarraga.

Beste urtaro bat: Klimaterioa

OSTIRALA. **Apirilak 28.**
17:00-20:00, Urigain. Sexune Elkarte (Elene Jimenez Jimenez eta Maria Lopez Altuna).

Bizikletan ibiltzea ikastea

Maiatzak 4, 11, 18, 25.
17:45-19:45, Ondarreta ikastetxea. Ainara Leibar (Txirindandoain).

Pailazoa jabekuntzarako bidelaguna

LARUNBATA. **Maiatzak 20.**
10:00-14:00, Urigain. Itziar Saenz de Ojer Martinez.

Jatorri anitzeko emakumeen elkargune multikulturala

ASTEARTERO.
16:30-18:30, Urigain. Sorburu.

IZEN EMATEA ETA HARREMANA:
jabekuntza.andoain.eus
Andoaingo Udaleko **Berdintasun** lantegia.
Tel. **943 300 830**, luz. **380 - 397**;
berdintasuna@andoain.eus.
Andoaingo Udaleko **ATARIA** zerbitzua

ANDOAINGO UDALA



Amantegi. AIURRI

Sentsibilizazio-lana dendetan



Gamer. AIURRI



Keinu. AIURRI



Asteazken goizean, Martin Ugaldeko Kultur Parkeko langileen mobilizazioa izan zen. AIURRI

Lehen mobilizazioa, asteazken eguerdian

Martin Ugalde Kultur Parketik manifestazioa abiatu zen, Goikoplazaraino. Azken urteetan egin bezala, Berria egunkariko eta parkeko hainbat langile manifestazioan irten ziren. Iluntzean, Andoingo asanblada feministak deitutakoa egin zen

Erredakzioa ANDOAIN

Aurtengoan feminismoak zaintza ardatz hartu du: "Eraldaketak masibo bat katalizatu behar dugu, zaintzen osotasuneko eraldaketa, bizitzak zentralizadeta izango duen antolamendu politiko, sozial eta ekonomiko baterantz". Asteazkenean, Andoainen deitu zuten manifestazioan ere zaintzaren aldeko

mezuak nabarmendu ziren. Ekitoko garaia dela aldarrikatu zuten: "Zaintza erregimenak guztiok gurutzatzen gaitu. Beste zaintza sistema bat egituratu nahi dugu. Beste sistema bat nahi dugulako. Baditugu nahikoa arrazoi: kaleak hartzeko unea heldu da. Aspaldi hasi genuen bideari jarraituz, gaur ere, denon bizitzak erdigunean jartzera

gatoz!". Lehenago, eguerdian, Martin Ugalde Kultur Parkeko langileek manifestazioa egin zuten.

**AURTENGO
MOBILIZAZIOETAN
ZAINZA IZAN DA
ARDATZ NAGUSIA**

Martxoak 8 Aiurri.eus webgunean



ALBISTEAK



ARGAZKI-BILDUMAK, BIDEOAK



AGENDA

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA





Aurkezpen ekitaldia egin zuten aurreko astean. AIURRI

Kultur aniztasunerako ekintza plana prest dute

Aurreko astean, ekintza planaren gida aurkeztu zuten hainbat eragilek. Tartean ziren udal ordezkari politikoak, udal teknikariak, Elkarrekin kooperatibako kideak, herriko ikastetxeetako ordezkariak, Gazte Lokaleko arduradunak eta herriko gizarte eragileak

Erredakzioa ANDOAIN
Hango eta hemengo biztanleentzat abegikor jotatzen duen udalerrria da Andoain. Horixe da, behintzat, asmoa. Lanketa baten ondorioz dator Andoaingo kultura aniztasunerako ekintza plana. Bere barnean bildu dira hainbat zerbitzuren eskaintza eta parte-hartze komunitarioa sustatzeko zenbait ekimen.

"Andoain abegikorra eta inklusiboa izateagatik ezaugarritzea eta aitortzea nahi dugu", adierazi zuen Maider Lainez alkatea, aurkezpen ekitaldian. Ekintza plan hori jasotzen duen liburuxka etxetxe banatu da, egunotan. Gida modukoa da, eta bost hizkuntzatan idatzita dago: euskara, gaztelania, arabiera, errumaniera eta ingelesa.

Gida argitaratzearekin batera, 10-15 orduko prestakuntza saioa eskainiko dutela iragarri zuten. Besteak beste, irakaskuntza alorrean. Aurkezpen ekitaldian, alkatearekin eta Jone Soto eragilearekin batera, jatorri errumaniarreko Maria Panicik eta jatorri arabiarreko Salka Jabbarik ere hitza hartu zuten.

Ekimen berrien aurkezpena

Bisitarien Etxean aurkeztu dituzte Bide Berdearen gida eta ikus-entzunezko material berriak. Bertan izan ziren Maider Lainez alkatea, Mari Jose Izagirre alkate-ordea eta Javier Hurtado Turismo sailburua. Hurtadoren esanetan, "zikloturismoaren praktika lehentasunezko ardatza da Euskadiko turismo-eredu jasangarrian".



ANDOAINGO UDALA



Lagun ugari elkartu zen Zumeatarra elkarteak. AIURRI

Afrikako eta Amerikako jakiak dastatzeko aukera paregabea

"Su-artean Gure-artean" ekimena Zumeatarra elkarteak egin zen, aurreko ostegunean

Erredakzioa ANDOAIN
"Su-artean Gure-artean" ekimena Ongi Etorri Eskolara ekimenak sustatzen du, Udalaren eta elkarte gastronomikoen lankidetzarekin. Aurreko astean dozenaka herrikide elkartu zen Zumeatarran, Nigeriako eta Venezuelako jakiak dastatzeko. Hainbat jatorritako andoaindarrak

arren artean kulturartekotasuna sustatzea da ekimenaren helburua. Venezuelako arepak, hiru esneko pastela eta Nigeriako arroza haragiarekin dastatu zituzten. Sukaldean, lanean, Genesis Yepez, Dolly Osaro, Maryoly Yepez, Zainab Owi, Tita Chavez, Maris Stephen eta Francismer Ruiz aritu ziren.



Munduko jakiak dastatzeko aukera paregabea da. AIURRI





IRAZU

Babesa, debutaren partidan

ERREMONTEA Jon Irazuren eta Aritz Eskuderoen debuta ezagutu genuen aurreko asteburuan, Berria Txapelketako lehen jardunaldian. Urdinez aritu zen Irazu, eta, gorriz, Eskudero. Bada, partidan urdin kolorea nagusitu zen 16-35 irabazita. Frontoia goraino bete zen,

erremontez gozatzeko eta, batez ere, debutariak ikusteko; Aiestaran, Gurrutxaga, Eskudero eta Irazu. Giro ona nagusitu zen, Galarreta frontoia festa giroan murgilduta. Irazuk eta Eskudero babes zabala jaso zuten, argazkietan ikus daitekeenez.



ESKUDERO

FUTBOLA Lehen postuan da Urnieta, igoera fasean

Urnietak Vasconia garaitu zuen (2-0), eta lidergotza sendotu du. Asteburuan sailkapenaren azken postuan dagoen Behobia taldearen zelaian jokatu du.

FUTBOLA

Senior maila, igoera fasea

SAILKAPENA

1	URNIETA	12 puntu
2	LANDETXA	11 puntu
3	SANPEDROTARRA B	9 puntu
8	BEHOBIA	2 puntu

FUTBOLA Garaipen berria, lidergotzara gerturatzeko

21. jardunaldian, Euskaldunak garaipena lortu zuen Unbe zelaian, Urkiren aurka (1-2). Lidergotzaren bila doaz andoaindarrak, bi puntura baitago.

FUTBOLA

Ohorezko jubenil maila

SAILKAPENA

1	ANAITASUNA	43 puntu
2	EUSKALDUNA	41 puntu
3	ZUMAIAKO	34 puntu
4	URKI	32 puntu



ANDOAINO

Protesta-ekitaldia Eibarren

TXIRRINDULARITZA Motozaleen auzia piztu da, lasterketei zuzen-zuzenean eragin diena. Horregatik elkarretaratzea deitu zuten, Eibarren. Bitartean, junior mailakoak Castellon aldeko lasterketetan aritu ziren. Eta kadete eta junior mailako neskak, Nojan (Kantabria).

SARRERAK ENTRADAS

berria
ERREMONTEA TXAPELKETA 2023
zuk badakizunlako

GALARRETA JAI ALAI HERNANI
MARTXOAK 11 LARUNBATA
16:30ETIK AURRERA

BERRIA TXAPELKETA (35 TANTO)
IRAZU • ZUBIRI vs
ZALDUA II • ODEI

BERRIA TXAPELKETA (35 TANTO)
GURRUTXAGA • ZALDUA vs
URRUTIA II • APEZETXEA

2. PARTIDUA (40 TANTO)
URRIZA • LABAKA vs
ALDABE • LARRANAGA



EUSKALDUNA

Zaletuen babesarekin

FUTBOLA Ohorezko jubenil mailan denboraldi polita egiten ari da Euskalduna taldea, eta 21 jardunaldi eta gero lidergotza esku-eskura dute. Aurreko asteburuan Unbe zelaian garaipena eskuratu zuten, eta ez ziren

haraino bakarrik joan. Alboan zituzten senideak eta lagunak, partidaren eta garaipenaren lekuko izateko. Asteburu honetan Ubitarte zelaian ariko dira, Orio taldearen aurka.

ESKUBALOIA Garaipenak ihes egin zien

Leizaran Lanbroa taldeak Ur-dulizen aurka galdu zuen, Allurralden (29-30). Asteburuan Bera Beraren aurka ariko dira.

ESKUBALOIA Liderra nagusitu zen Urnietan

Eibarrek nagusitasuna erakutsi zuen Urnieta Quel Abogadosen aurka (17-22). Asteburuan Aialaren kantxan ariko dira.

FUTBOLA Hirugarren postua sendotu dute

Hirugarren postura jauzi egin du Euskaldunako lehen taldeak, Gorengo mailan, Roteta garaitu eta gero (2-1).



Partida garrantzitsua dute, larunbat honetan Andoainen. LEIZARAN

Sailkapenaren bigarren postuari eusten dio Leizaran taldeak

ESKUBALOIA Larunbat honetan, Allurralden partida dute, 18:45tan hasita, Saieko taldearen aurka

Erredakzioa ANDOAIN

Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak Aritzatalde taldearen zelaian garaipen berria eskuratu zuen (26-28), 1. lurrealdeko senior mailako gizonezkoen ligako bigarren postuari eutsiz horrela.

ESKUBALOIA

1.Lurrealdeko senior emakumezkoa liga

SAILKAPENA

1	ORDIZIA	31 puntu
2	LEIZARAN	24 puntu
3	UROLA	24 puntu
4	SAIEKO	23 puntu
5	ORMAIZTEGI	21 puntu

SAHARAREN ALDEKO BERTSO-SAIOA

Alaia Martin
Amets Arzallus
Oihana Iguaran
Aitor Mendiluze
Maialen Lujanbio
Sustrai Colina

Martxoak 19, igandea ANDOAIN

12:00 Bastero Kulturgunea

Sarrerak salgai: 6 euro.
Stop, Ernaitza, Delgado eta Urrats

ANTOLATZAILEAK

Elburria Sahara
S.T.A.O.-en laguntza elkartea

PUNTURA
BERTSO ESKOLA

LAGUNTZAILEAK

AIURRI

BELKOAIN
Fisioterapia zerbitzua

urkiola

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 9

URNIETA Bakarrizketa
"Asterisko". Ezin enkajatu gabiltza gure egunerokoan. Asteriskoak al gara? Nortzuk gara? Nola bizi? Umoretik hausnartzen ditu Nerea Arriolak eguneroko abenturak eta desbenturak.
19:00, Sarobe.

URNIETA Lehiaketa
Antia literatur lehiaketa haur, gazte eta helduen mailetan.
Lanak aurkezteko epea:
Martxoak 17. Lekaio.

ANDOAIN Erakusketa
"Joko amaigabea", Alicia Martin Lopezen eskutik.
18:30, Bastero.

ANDOAIN Antzerkia
"Tupper sex".
20:30, Bastero.

ANDOAIN, URNIETA Euskara
Errigora ekimena martxan da. Badator Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura! Erosketa egin daiteke Errigora.eus gunean bertan.
Martxoak 9-29.

OSTIRALA 10

ANDOAIN Kontzertua
Kai Nakai artista.
20:00, Bastero.

ANDOAIN Merkataritza
Outlet kalean.
Merkataritza ordutegia.

LARUNBATA 11

URNIETA Bertso-saioa
Unai Gaztelumendi, Oihana Iguaran.
Xoxoka.

ANDOAIN Merkataritza
Outlet kalean.
Merkataritza ordutegia.

IGANDEA 12

URNIETA Antzerkia
"Las que limpian", A panadaria.
19:00, Sarobe.



Outlet kalean aurreko edizio batean. **AIURRI**

ANDOAIN Outlet kalean
Andoaingo merkatariek, Salkinen deialdiari jarraituz, prezio bereziak eskainiko dituzte hainbat produktutan. Gertuko merkataritzara gerturatzeko aukera paregabea.
Martxoak 10 eta 11. Andoaingo merkatalguneak.

ASTEAZKENA 15

URNIETA Ikastaroa
Gozogintza-ikastaroa, Urnietako AEK-ko Zilegi Eskola medio. Gaztelo gozotegikoek emango dute saioa, 18:00etan hasia. Beharrezkoa da aurrez izena ematea: 663 04 33 14 edo zilegieskola@ae.eus.
18:00, Santa Krutz elkarte.

IGANDEA 19

ANDOAIN Bertso saioa
Sahararen alde, Hurria-Saharak eta Punttukak antolatuta. Alaia Martin, Amets Arzallus, Oihana Iguaran, Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina. Sarrerak Stop, Ernaitza, Delgado eta Urrats.
12:00, Bastero.

MARTXOAK
10-11

OUTLET KALEAN

ANDOAINGO DENDAK BETI ZUEKIN

S2 SALKIN
bertatik bertara

ANDOAIN

GORA KALETXIKI TXARANGA
18:00 - 20:00

ZINEMA



ANDOAIN BASTERO
Ellas hablan
Lar, 11. 19:30, 22:00.
Ig., 12. 19:30.
Astl, 13. 19:30, 22:00.

Momiak
Lar, 11. 17:00.
Ig., 12. 17:00.
Almas en pena de Inisherin
Lar, 18. 19:30, 22:00.
Ig., 19. 19:30.
Astl, 20. 19:30, 22:00.



SINOPSISIA



Ellas hablan
Zuzendaria: Sarah Polley. **Gidoia:** Sarah Polley, Miriam Toews.
Aktoreak: Rooney Mara, Claire Foy, Ben Whishaw, Jessie Buckley, Frances McDormand, Judith Ivey... **Herrialdea:** AEB (2022).
Hizkuntza: Euskaraz. **Generoa:** Drama, erlijioa, sexu jazarpena. Benetako gertaeretan oinarrituta. **Iraupena:** 104 min.

Benetako gertaeretan oinarrituta

2010ean, erlijio-kolonia bat osatzen duten emakumeak fedearekin adiskidetzen saiatzen dira, hainbat sexu-eraso jasan ondoren. Miriam Toewsen eleberria, benetako

gertaeretan oinarrituta, pantaila handira eraman dute. Oscar sarietarako gidoi egokitua jasotzeko hautagaietakoa da. Nazioarteko sari ugari jaso ditu filmak.



andoaINDARRA
euskaraz

Andoaingo Energia Komunitatea zer den azaltzeko bulegoa

Udaletxeko Ataria arretarako informazio gunean egokitu dute, eta apirilaren 4ra arte zabalik izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Beste herri askotan bezalaxe, Aldundiak eta Udalak Andoaingo Energia Komunitatea (TEK) martxan jarri nahi dute. Otsailaren 28an egin zuten ekimenaren aurkezpen publikoa. Iragarpen zehatza egin zuten: lehen faean, Allurralde kiroldegiko sapaian, eta, Ondarreta ikastetxeko aterpean, 370 plaka instalatu nahi dituzte herriko hainbat familiari “energia garbia, zero kilometrokoa eta autokontsumo formatuan ekoitzi eta kontsumitzeko aukera eskainiz”.

Udalak egin zuen aurkezpen bilerara jende asko hurbildu zen, eta, jarraian, herritar guziei informazio osagarria eskaini nahi diete.

Informazio bulegoa

Udaletxeko beheko solairuan dago Ataria arretarako informazio gunea eta bertan kokatu-

ko dute TKari buruzko arreta zerbitzua. Datorren apirilaren 4ra arte egongo da irekita, eta ordutegia honako hau izango da: asteartero, 10:00etatik 14:00etara, eta, ostegunero, 14:00etatik 17:45era. Petri Romero zinegotziak adierazi duenez, “TEK ekimenaren lehen fase honetan Andoaingo 250 auzokide eta/edo merkatalgunera iritsiko da. Informazio zerbitzuari esker, energia komunitatearen inguruan sor daitezkeen zalantzak argituko zaizkie andoaindarrei. Eskaerak osatzeko garaian ere laguntza eskainiko zaie, horren premia dutenei”.

UDALETXEKO BEHEKO SOLAIRUAN ZABALIK IZANGO DA INFORMAZIO GUNEA

BERTSO AFARIA



OIHANA IBARRA - UNAI GAZTELUMENDI

MARTXOAK 11 - LARUNBATA - 21:00

XOXOKAKO ELKARTEAN

25€ (HAURRAK 12€) IZENA EMATEKO 617 43 57 45

“Gazteak eta mugikorrak: zer egin dezakegu?”

Datorren martxoaren 14an izango da Urnietako kiroldegian, 17:30ean hasita

Erredakzioa URNIETA

“Gazteak eta mugikorrak: gurasook zer egin dezakegu?” hitzaldia antolatu du Urnietako Udalak, Bidelagun taldearen eskutik. Martxoaren 14an izango da hitzordua, kiroldegian, arratsaldeko 17:30-19:00 bitartean.

Bertan parte hartzeko interesa dutenek izena eman beharko dute martxoaren 13ra bitarte, presentzialki, Bertan eta Gazte Informazio Puntuan edota 943 008 033 telefono zenbakira deituta.

Aztergai ezberdinak hartuko dituzte kontutan: pantaila ezberdinen erabilerari buruz go-goeta egin eta pertsonengan duten eragina plazaratzea, helduok pantailekin dugun harremana eta erabileraren gainean hausnarketa egin, interneten ibiltzearen arriskuak eta babesteko pistak, sare sozialek konkretuki duten eragina, Online-jokoak sortzen ari den menpekotasuna, smartphone-n erabilerari buruzko jarraibide eta mugak, gurasoentzako lagungarri eguneroko kudeaketan, aurreneko mugikorraren erosteketa atzeratzeaz eta abar.

Gozogintza ikastaroa Urnietan, datorren martxoaren 15ean

Gozogintza-ikastaroa izango da herrian, datorren martxoaren 15ean, Urnietako AEK-ko Zilegi Eskolaren eskutik. Gaztelo gozotegikoek emango dute saioa Santa Krutz elkartearen, arratsaldeko 18:00etan hasita. Saioa doakoa izango da, baina beharrezkoa da aurrez izena ematea, 663 04 33 14 telefono zenbakira hots eginda edo zilegieskola@aei.eus helbide elektronikora idatzita.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

Aste Santuan Gironara, Euskaldunarekin

Gironako GR-92an barrena txangoa egingo dute, Portboutik Rosesera. Informazioa eta izen-ematea elkartearen, bazkide ez direnentzat.

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Azaroak 13, astelehena.
16:30-20:10.
ANDOAIN, Anbulatorioa. Hitzordua egun berean hartzeko, 943 007 884 telefono zenbakira deitu.

Martxoak 17, ostirala.
16:30-20:30.
URNIETA, Gaztelekuan. Hitzordua egun berean hartzeko, 943 007 885. telefono zenbakira deitu.



AIURRI

Egunean Behin

Lehiaketa ezagunaren 11. denboraldiko lehen bost asteak igaro dira, eta "Aiurri" taldean ehunka partaide eguneroko partida jokatzen ari dira. Laugarren asteko zozketa egin eta gero, "Aiurri" taldeko irabazlea "Azabala" izan zen. Denboraldi honetan, Arruti gozotegia da lehiaketako babeslea, eta haren eskutik jaso zuen sari gozoa.



Urnietako
udala



martxoak 9 - 29

**Nafar hegoaldeko uzta
eskutik eskura**

Bat egin Errigora Balioekin

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio
birjina estra, kontserbak, arroza, pasta
eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta
ekoizlearen jatorrizko prezioan.

errigora.eus



**Bete ezazu
despentsa
*urte guztirako***

